

## Orein-mota berria Vietnamen

**X**X. mendearen hasieraz gero ugaztun handien bost espezie berri besterik ez dira identifikatu, baina azkenaldian Vietnamgo iparraldean Vu Kuang-eko erreserba naturalean "oreintzar zaunkariaren" berri eman digute. Oraindik Vietnamgo Baso Ministeritzako zientzilariek mota honetako orein bizirik ez dute eskuratu, baina ehizatutako 19 orein aztertu dituzte. Larruko laginen analisi genetikoa (Kopenhage-

-n egin dute) garbi erakusten duenez, oreintzar zaunkaria zientzilariek ezagutzen dituzten beste muntjak espezieekin konparatuz bestelakoak dira. 1,5 aldiz handiagoa da orain aurkitutako espezie berria eta 40-50 kilo inguru pisatzen duela kalkulatu dute.

## Talka-uhinen irudia

**T**-38 hegazkinak soinuaren abiadura-muga gainditu zuen, eta NASAk Langley-n duen zentruko Leonard M. Weinstein ikerlariak, berak moldatutako teleskopio



Eztanda supertonikoaren irudia eta eztaundaren irudia hartzeko erabili zen teleskopioaren argazkia.

bereziaz, eztanda supertonikoaren irudia hartu zion. Hegazkinak sortutako talka-uhinak garbi ikusten dira, eta aerodinamikan diharduten ikerlariak pozik daude; Weinsteinen teleskopioa beren lanerako tresna ezinhobe baina.

Izan ere, hartzaren hortzak, oreinaren adarrak, zaldiaren falangeak, etab. aurkitu dituzte eta ez dirudi elikagai-hondakin gisa daudenik.

Hormak eta sabaia betetzen duten pintura eta grabatuak, oso kaltetuak daude eta nabarmendu ahal izateko teknika sofistikatuz baliatu behar da.

Oso animalia desberdinak daude marraztuta: mamutak, errinozeroak, hartzak, gorri marraztutako hegaztia, etab. Paleolitoko gainerako kobazuloetan nekez ikusten diren animaliak daude marrazturik.

## Prehistorian pintatzeko zuten teknika

**F**rantziako Yonne departamentuko Arcy-sur-Cure herrian aurkitu duten koba handian, hormetako marrazkietarako margoak hartzaren falangeaz nahasten zituzten. Hori iradokitzen du behintzat Michel Girard eta Dominique Baffier-ek apirilean egin zuten indusketak.

Dena den, animalien gainerako hondakinak zertarako erabiltzen zituzten ez dago garbi.

## Zanjan-go gizona

**I**rudiko gizon ilehoriaren burua duela gutxi aurkitu dute

Teherandik mendebaldera Zanja probintziako Hamzulu izeneko herriskan. Artilezko jantzia eta urrezko belarritakoa zituen. Ingu-



XX. mendearen hasieraz gero ugaztun handien bost espezie berri besterik ez dira identifikatu, baina azkenaldian Vietnamgo iparraldean "oreintzar zaunkariaren" berri eman digute.



Barne-belarrira bisita

**A**lemaniaiko Dresde hiriko museoak bertara hurbiltzen direnei oso bisita bitxia eskaintzen die. Izan ere, edozein ibil daiteke giza-belarriaren barnean. Pertsonen entzumen-organoa eskala handian molde bidez prestatu dute eta jendea belarriak barruan dituen gela, tinpano eta gainerako elementuak bertatik ikusiz ibil daiteke. Barne-belarriko puntu bakoitzean soinua nola jasotzen den ere simulatu dute.



Alemaniaiko Dresde hiriko museoak bertara hurbiltzen direnei oso bisita bitxia eskaintzen die. Izan ere, edozein ibil daiteke giza-belarriaren barnean.



Irudiko gizon ilehoriaren burua duela gutxi aurkitu dute Teherandik mendebaldera Zanjan probintziako Hamzulu izeneko herriskan. Adituek diotenez, duela 2.600 urte bizi izandako berrogei bat urteko gizona da.

ruan gerrikoa eta aiztoa bere larruzko zorro eta guzti aurkitu dizkiote. Adituek diotenez, duela 2.600 urte bizi izandako berrogei bat urteko gizona da. 25 metroko sakoneran gatz-meatze batean aurkitu dute eta badirudi bertan zebilela sabaia gainera erorita hil zela. Kaldearrek Babilonia hartu zuten garaikoa denez gero, Nabukodonosor erregearen garaian bizi izandakoa dugu. Garai hartan Irango mesetetan bizi ziren tribuei buruz informazioa eskain dezakeen lehen aurkikuntza da.

Ihesen kontrako kamera

**B**ritania Haundian neutroi-kamera prestatu dute eta industrietan pieza mekanikoak kontrolatzeko oso baliagarria izan daiteke. Neutroiek metala zeharkatu egiten dute, baina X izpiak ez bezala, oxidoak edo hidrogenoa (ura edo labaingarriak) dauden lekuetan geratu egiten dira. Ezaugarri horri esker, motore eta makinetan bestela detektatuko ez liratekeen ihes- edo korrosio-puntuak aurkitu ahal izango dira. Orain arte ziklotroiaz bakarrik lortzen ziren neutroiak, baina erreaktore nuklear hauek handiak eta garestiak dira. Birmingham-go unibertsitatea Oxford Instruments eta Rolls-

-Royce etxeekin batera lanean aritu da askoz ere ziklotroi txikiagoa lortu asmoz. Superroalez egin dute ziklotroia eta kamioiz eraman dezakete leku batetik bestera. Izan ere, hogeitona ohizko ziklotroien aldean honen hiruzpalau besterik ez baititu pisatzen. Batez ere industria kimikoan eta automobilgintzan erabiliko dute, baina armadan eta hegazkingintzan ere bai.

